

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<b>Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2024-04-25

Tokia: Billamonte Kultur Etxea

Ordua: 17:00-19:15

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Gizatiar: Miren Gabiña

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastián

Eskuz Esku: Isabel Pérez

Getxo Enpresa: Yenny Medrano

Sindikatuak: Iratxe Zarraga

EAJ-PNV: Zaloa Campillo

PSE-EE: Mihaela Jilavu

EH Bildu: Ane Larrakoetxea

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva

PP: Javier Elorza

Batzordeburua: Carmen Díaz

Idazkaria: Bego García

**Gai-zerrenda**

- **Batzordea eratzea**
  - o Ongietorria alkateari.
  - o Batzordekideen aurkezpena.
  - o Batzordearen funtzionamendua.
- **Bilera-egutegiaren proposamena.**
- **Berdintasunaren alorreko udal-informazioa.**

- **Galde-eskeak.**

Gizarte-kohesioko zinegotzi den Carmen Díazek hasi du bilera eta ongietorria eman die bertaratutakoei.

## 1. Batzordea eratzea

---

Carmen Diaz Berdintasuneko zinegotziak legegintzaldi honetako lehen bilera hasi du eta barkamena eskatu du alkatea osasun-arrazoiak direla-eta ez bertaratzeagatik. Ongietorria eman ondoren, eskerrak eman dizkie bertaratu izanagatik eta batzordekideak aurkezteko txanda hasi da.

Bilgune Feministako ordezkariak eskatu du hurrengo bileretan hizkuntza-eskubidea errespetatu dadin, foro horretan nahi duenak euskaraz hitz egin dezan eta entzun diezaioten. Horretarako, udalari eskatu dio beharrezkoak diren baliabideak gaitu ditzan eskubidea gauzatu dadin. Premiaren balorazioa partekatzen da. Esaten zaio ez dela erraza, itzulpen-kabina izateak prezio altua baitu, eta beste bide batzuk aztertuko direla, hala nola app bat erabiltzea.

Azkenik, batzordeko araudia aipatu du zinegotziak eta horren kopia bana helarazi zaie bertaratutakoei. Aurreko urteekin alderatuta hobetu beharreko alderdiei dagokienez, aipatu da urte osoko bileren datak finkatu behar direla eta horietarako deialdiak bidali, betiere araudian jasotako denborak errespetatuz.

## 2. Bilera-egutegiaren proposamena

---

Aurreko atalean adierazi bezala eta batzordekide guztiek aho batez onartu ondoren, honako data hauek finkatu dira 2024ko batzordea biltzeko:

- Ekainak 6
- Uztailak 12
- Irailak 12
- Urriak 3
- Azaroak 7

### 3. Berdintasunaren alorreko udal-informazioa.

---

Honako gai hauei buruzko informazioa eman da:

- Gurari: obrak amaitu dira, logoa erabakitzeko fasean dago; langileak kontratatzeke pleguak Kontratazio Arloan daude. Horiek horrela, sindikatuko ordezkariak aldarrikatu du aipatutako zerbitzua ematen duten langileak udaleko bitartekoak izan daitezzen. Bilgune Feministak adierazi du informazio gutxi dutela logoari buruz; horren harira, erantzun diote ez diotela trantsizio-taldeari horren berri eman balitekeelako taldeko norbait lehiaketara aurkeztu izana.

Hurrengo deialdiarekin batera Gurari sortzeko prozesu guztiaren laburpen-dokumentua bidaliko da.

Elkarrekin Podemos taldeko ordezkariak berdintasun-teknikariari buruz galdetu du, prozesu guztian zehar adierazi baita langile hori kontratatu egingo zela. Zinegotziak erantzun du emakumeen etxea kudeatzeko II. kapitulua kontratatuko dela, eta arloak balioetsi duela beste teknikari bat behar dela berdintasun-zerbitzua kudeatzeko, eta hala jakinarazi zaiola langileen arloari.

- Jaietako kanpaina. Aurtengo Berdintasun Zerbitzuak jarraituko du puntu moreen zerbitzua eskaintzen, aurten San Isidroko jaietan ere bai.

Bilgune Feministak adierazi du 2024ko San Isidro, San Inazio, Romo eta Portu Zaharreko jaietan txosnak jartzeko deialdiari buruz eman den ebazpenak ez duela genero-ikuspegia aintzat hartzen, legeak agindu bezala. Hori dela eta, emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista desabantailan geratzen dira beste elkarte batzuekin alderatuta, hala nola kirol-elkarteen aldean, azken horiek puntu gehiago jasotzen baitituzte urtean zehar egiten dituzten jarduerengatik eta elkartekide-kopuruagatik. Bilgune Feministak salatu du Kultur Etxeak ez duela mugimendu feminista elkartetzat jotzen eta ez duela kontuan hartzen ebazpenak emateko unean. Horregatik guztiagatik, Berdintasun Zerbitzuari eskatu digute hori guztia Kultur Etxeari jakinarazteko.

- Punta Begoña galerietan, maiatzaren 3tik 26ra, "Bide luzea berdintasunerantz: Euskadiko emakumeak XX. mendean" erakusketa eskainiko da, Mario Onaindia Fundazioaren eskutik, zeina Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu eta finantzatu baitu.

#### **4. Galde-eskeak**

---

Alderdi Popularreko ordezkariak proposatu du bilerak aurrez aurre nahiz online egitea, batzordekideen parte-hartzea errazte aldera.

19:15ean amaitu da bilera eta adostu da batzordearen hurrengo bilera ekainaren 6an egitea.